



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

ZALDIBIA ETA GAINZA UDALERRIEN ARTEKO ELKARTEAREN ESTATUTUAK, IDAZKARITZA LANPOSTUARI BATERA EUSTEKO.

1. ARTIKULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. Estatutu hauen xedea honako hau da: Idazkaritza lanpostu bakar bati batera eusteko Zaldibia eta Gaintza udalerrien artean 1942an eratutako elkartearen antolaketa eta funtzionamendua arautzea. Elkartea epe mugagaberako dago eratuta: desegiten den arte.

2. Elkarreak ez du nortasun juridikorik eta bere helburu bakarra da bi udalerrri horietako udalek Idazkaritza lanpostu bat izatea elkarrekin eta elkarrekin horri eustea, hurrengo artikuluetan adierazten diren araubide, eskubide eta betebeharrekin.

3. Elkartutako lanpostua egun 3. mailako Idazkaritza gisa dago sailkatuta: gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioako funtzionarioei gordetako, Idazkaritza-Kontuhartzaitza azpieskalakoei. Lanpostu hori estatutu hauetan xedatutakoaren eta legezko xedapen aplikagarrien arabera arautuko da. Besteak beste, ondorengo hauen arabera:

- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 bis artikulua.
- Gaikuntza nazionaleko Toki Administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa ezartzeko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretua.

4. Lanpostu horretan diharduen funtzionarioak legez eta erregelamenduz dagozkion eta estatutu hauetan jasotzen diren eskubide eta betebeharrak izango ditu.

5. Elkartearen hiriburutza Zaldibiako udalerrria da, eta bere udaletxean du egoitza.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

2. ARTIKULUA. ELKARTEAREN ANTOLAKETA.

1. Elkartearen gobernatzeko gobernu organo bat izango da: Elkartearen Batzordea.
2. Zaldibia eta Gaintzako alkateek osatuko dute Elkartearen Batzordea. Alkateordeak alkateen ordeztatu ahal izango dira, horri buruz hartutako erabakian jasotako baldintzetan.
3. Elkarteko Batzordeko lehendakaria Zaldibiako alkatea izango da, hiriburutza udalerritik horri baitagokio. Batzordeko idazkari-lanak Elkarteko idazkariak egingo ditu.
4. Elkartutako lanpostuari dagokionez, Elkartearen Batzordeak indarrean dagoen legeriak udalari ematen dizkien eskumenak izango ditu; zehazki, lanpostuaren lan ordutegia udalen artean banatzeari dagokionez, ordainsari osagarriak finkatzeari dagokionez, eta abar.
5. Elkartearen Batzordea urtean behin bilduko da ohiko bilkuran; eta bilkura berezian, berriz, lehendakariak egokitzat jotzen eta justifikatzen duenean edo elkartutako udaletako batek eskatzen duenean.

3. ARTIKULUA. ELKARTUTAKO LANPOSTUA BETETZEN DUEN FUNTZIONARIOAREN ARAUBIDEA.

1. Elkartutako lanpostua Zaldibia eta Gaintza udalerrietako udalen lanpostuen zerrendan eta plantilla organikoan, bakoitzean dagokion ehunekoan, egon behar da: lanpostuaren kostuaren banaketaren proportzioan.
2. Lanpostuaren oinarriko ordainsariak une bakoitzean legez ezarritakoak izango dira.
3. Ordainsari osagarriak Elkartearen Batzordeak finkatuko ditu; eta Zaldibiako eta Gaintzako udaletako osoko bilkurek berretsi beharko dute erabaki hori. Horrela:
 - Lanpostuaren **destino osagarria** 26 mailari dagokiona izango da Zaldibiako Udalean eta 22 mailari dagokiona Gaintzako Udalean.
 - Bestalde, Toki Administrazioako funtzionarioen ordainsarien araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuak 8.1 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, **berriazko osagarria** sartu behar da **lanpostua elkartzeagatiko osagarria**:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

elkartutako udal bakoitzeko, lanpostuari esleitutako destino osagarriaren zenbatekoaren %15a izango dena.

Udaletako batek, bere kabuz, legez ahal den beste edozein ordainsari osagarri onetsiz gero (produktibitate osagarria, kalte-ordaina edo aparteko zerbitzuengatiko haborokina), Elkartearen Batzordearen onespenez gabe, bere gain hartu beharko du osagarri horren kostu osoa.

4. Aurreko ordainsariak, Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioak eta Elkartearen funtzionamendutik eratorritako gainerako gastuak elkartutako bi udalen artean banatuko dira, idazkariak udalerrin bakoitzean duen dedikazio-ehunekoaren arabera, zehazki, ondorengoak:

Udala	Dedikazio-ehunekoa (%)
Zaldibia	90,12
Gaintza	9,88

Dedikazio-ehuneko hori aldatzekotan, estatutuak aldatu beharko dira, 4. artikuluan xedatu prozedurari jarraikiz.

5. Idazkariaren lanaldia une bakoitzean legez ezarritakoa izango da. Ezarritako lanaldiaren arabera, jarraian adierazten den ordutegia izango du idazkariak bere eginkizun profesionalak betetzeko elkartutako udal bakoitzean, aurreko ehunekoak aplikatuta eta horiek indarrean dauden bitartean. Ehunekoak berriz finkatzeko estatutuak aldatzen badira, gorabehera horrek ordutegietan izango duen eragina ere estatutuetan islatu beharko da dagokion aldaketaren bidez.

Finkatzen den ordutegiak ahalbidetu behar du idazkariak bere karguari dagozkion udal bulego guztietara joatea; eta behar bezala justifikatuta aldatu ahal izango da, Elkartearen Batzordeak hala erabakitzen badu.

Udaletako batek beharrezkotzat jotzen badu bertan bete beharreko ordutegia luzatzea, bere kontura izango litzateke prestazio horri dagokion ordainsaria.

Ondorengo ordutegi hau finkatzen da orokorrean, nahiz eta moldagarria izan daitekeen lan antolaketaren arabera. Moldaketa horiek jakinarazi egingo dira garaiz bi udaletan:



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

Udala	Dedikazio-ehunekoa (%)	Asteko egunak	Ordutegia
Zaldibia	90,12	Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala: Asteazkena:	9:00-16:00 12:30-16:00
Gaintza	9,88	Asteazkena,	9:00etatik 12:30era

6. Era berean, Elkartearen Batzordeari dagokio idazkariaren lizentziak eta horien ordezkapenak ezagutu eta koordinatzea.

7. Diziplina-araubidea indarrean dauden legezko eta erregelamenduzko xedapenetan jasotakoa izango da; eta elkartutako udaletako organo eskudunek diziplina-ahala erabili ahal izateko, aldez aurretik Elkartearen Batzarraren txostena beharko da.

4. ARTIKULUA. ESTATUTUAK ALDATZEKO PROZEDURA.

Estatutu hauek aldatzeko, onesteko bete beharreko izapide berberak beteko dira.

Ekimena izan dezake Elkartearen Batzordeak berak nahiz elkartutako edozein udalek, beste udalari jakinarazita.

Estatutu-aldaketa onesteko ezinbestekoa izango da elkartutako udal bakoitzeko legezko kide kopuruaren gehiengo osoaren aldeko erabakia.

2023ko urtarrilaren 30ean, Zaldibiako Udaleko ohiko osoko bilkuran aho batez onartua.

EH BILDUko aldeko 5 boto eta EAJ-PNVko aldeko 2 botoekin aho batez onartua